

noaua

**Nafartarrak taldeak
3.400 euro batu ditu
Lurzaindiaren alde**

**Herri galdeketa hiru
egunez luzatuko da eta
auzoz auzo egingo da**

**Beste kutsu batekin
datoz San Estebango
jaiak**



Argazkia: Lourdes Hneta

**Zubietarrak,
jai giroan murgiltzeko zorian**

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Begiraleekin antofaturiko jarduerak.

ONTZIEKIN ALORRIKUA URTETAN OSOAN ZEHAR

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakean.

657794677
info@begi-bistan.com

FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO, HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA INGURUNE PAREGABEAN Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia
E: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

Albiste iruditzen

Ur zikin gutxiago erriora

Usurbilgo ur zikin gehienak kolektore bidez Loiolako araztegi-ara doaz martxoaz geroztik, eta ez erriora, orain arte moduan. Ur zikin gehienak, baina ez guztiak. Oraindik Txokoalde, Aginaga eta Zubietako zenbait zonalde saneamendu sare horretatik kanpo baitaude. Egunotan errealitate hau aldatzen hastekoak dira, "Lasarte-Oria eta Usurbilgo kolektore nagusiaren eta Zubietako saneamenduaren arteko loturaren eta hondakin uren ponpalekuaren proiektua egikaritzeko obrak" abiatuko dituzte, Usurbilgo Udaletik berri eman dituzte.

Ponpaleku bat eraikiko da Zubietako Aliriko zubiaren eta zerrategi arteko lur eremuan, egun Zubietan ubidera isurketak egiten diren gunearen alboan eta ponpaleku hau Usurbil eta Lasarteko interzeptorearekin lotuko da kolektore



Ponpaleku bat eraikiko da Zubietako Aliriko zubiaren eta zerrategi arteko lur eremuan, egun Zubietan ubidera isurketak egiten diren gunearen alboan. Eta ponpaleku hau Usurbil eta Lasarteko interzeptorearekin lotuko da kolektore berri baten bidez.

berri baten bidez. 340.000 euroko aurrekontua dute Urbycolan, S.L. enpresak egingo dituen lanok. Gastua Añarbe

Urak S.A.k hartuko du bere gain. Azarora amaierarako lanak amaituta egotea espero dute.

Laburrean

Presoen eskubideen aldeko ekitaldiak udan

Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkartasun ekimenek ez dute etenik izango uda honetan. Gogoan izan, azken ostiralak mobilizazio egunak izango direla:

- Uztailak 29, 20:00 Mikel Laboa plazan.
- Abuztuak 26, 20:00 Mikel Laboa plazan.

Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

313tik 307ra jaitsi da langabetu kopurua

Estatuko Enplegu Zerbitzuak-en arabera, 313 langabetu erregistratu zituzten Usurbilen maiatzean. 6 lagun gutxiago, 307 ekainean. Gizonezko langabetu kopuruan eman da beherakada nabarmena; 152tik 143ra murriztu da. Aldiz, emakumezkoena igor egin da, 161etik 164ra.

Irailaren 10ean, 58koen kinto bazkaria

Irailaren 10ean bilduko dira 1958an jaio-takoak. Antxetan izango da bazkaria eta 14:00etan batzeko deia egin dute. Aurrez 50 euroko ordainketa egin behar da (irailaren 5a arte); kontu zenbaki honetan: 3035 0140 36 1400030013 (Euskadiko Kutxa).

noaia

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaia.eus ||| www.noaia.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatoria:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaia.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Arana, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Pina, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Patrikako mugikorra

Duela hilabete pare bat mugikor bat erregalatu nion nire iloba-biloba zaharrenari; 12 urte bete berriak zituen eta bere gurasoek eta nik adin hori jarri genuen une egoki bezala sakelako telefonoa oparitzeko. Badirudi urte horiek joaz gero gai direla nahiko zentzuz erabiltzeko tresna harrigarri bezain arriskutsu hori.

Irakurri berria dut Greziako uharte batean etorkin eta errefuxiatuei laguntzen arituen batek kontatua: nonbait, lehorrera iritsi bezain pronto etorkinek eskatzen zutena zera zen: wifia eta sakelako mugikorra kargatzeko modua. Ura, janaria edo arropa baino lehen. Ulertzekoa da, hainbeste dute kontatzeko.

Zazpi mila milioi pertsona bizi gara munduan eta mugikorra daukagunok 7.300 gara, beraz, erabiltzen ez dituzten haurrak eta zaharrak kenduta, badago eliteren bat bi edo hiru dituen.

Maiatza eta ekaina dira haurrek jauntzea egiten du-

ten garaia. Ia orain arte, bizikleta zen gurasoek egiten zieten opari preziatuena. Orain "goleadaz" irabazten du mugikorrak. Jaunartzea egiten dutela edo ez, mimetismoz besterik ez bada, hamar bat urte inguruko haur guztiek eduki nahi dute hainbeste amestu duten komunikagailua. Hamabi urterekin badirudi gai direla egoki samar erabiltzeko aparatu hori. Nire ilobei horrela iruditu zaie eta psikologoek ere zentzu horretan hitz egiten dute.

Zalantzarik gabe, mugikorra oparitu aurretik egokia izango litzateke prestakuntza edo "katekesia digitala" egitea haurrekin, negoziatzea, arau batzuk jartzea nolana ere erabili ez dezaten eta informatzea abantailez eta arriskuez. Izan ere, "smartphone" baten mesedeak kontatzezinak badira, kalte handiak ere eragin ditzake. Inkesta baten arabera, %75entzat pertsonen arteko harremanak arindu egin ditu, oso azalekoak dira. %74ak denbora gehiago pasatzen du mugikorretik hitz egiten bere bikotearekin baino. Fetitxe bat

bihurtu da askorentzat.

Adituen ustez, kalterik handienak gaztetxoek jasaten dituzte. Bi aipatzen dituzte batez ere: ziberrerasoa edo ziberrakosoa; irainak, mespretxuak, mehatxuak eta abarrek ez dute etenik: eskolan, jolasean tokian, etxean; egun osoan jarduten dira gaztetxo batzuk. Adoleszente anitz defentsarik gabe aurkitzen da eraso horien aurrean. Bigarren arriskua: mugikorrek sortzen duen menpekotasunak eragin oso ezkorra izan dezake haurraren hazkunde fisiko, psikiko eta sozialean.

Irakurri berria dut gaztetxo batek bete behar lukeen pentalogoa (bost agindu) mugikorra erabiltzerakoan:

- 1- Gauza guztien gainetik, errespetatuko dituzu besteak.
- 2- Ez dituzu emango zeure datuak gurasoen baimenik gabe.
- 3- Mugikorra itzaliko duzu ikasten ari zarenean eta lo zaudenean.
- 4- Ez duzu inor erasoko, mespretxatuko edo irainduko.
- 5- Ez duzu eskatuko edo bida-

liko argazkirik biluzik.


Pentalogo honen egilearen ustez, zerbait antzekoa izan behar luke gaztetxo orori eman behar geniokeen eskuliburua mugikorra ondo erabil dezan.

Asko idatzi da gurasoek eduki behar luketen kontrolaz, izan behar luketen arduraz, batez ere Interneten sartzeko baimena ematen bazaie seme alabei. Zaila da kontrolatzea eta aldi berean nerabeak eduki behar duen askatasuna errespetatzea; gaztetxoak ere gero eta libreagoa izateko eskubidea du eta oreka hori lortzea ez da erraza.

Gure gaztetxoentzat sakelako mugikorra da elementu teknologiko gehien erabiltzen dutena. Gaurko smartphone-ak ez dira bakarrik hitz egiteko, komunikatzeko, ordenagailuen gisa lan tresna apartak ere. Gaztetxoek beren izaeraren parte bat bihurtu dute eta etekin handia ateratzen diote. Gurasoen kontrolrik onena ez da teknologikoa, heziketa baikik, elkarrenganako konfiantza eta komunikazioa landuz.

Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | **Luis Aranalde** | Luken Arkarazo | Aritz Gorriti

Joseba Larratxeren komikia



Lurzaindiaren egitasmoak sustatzeko 3.400 euro batu dira Usurbilen

Iragan martxoan, Lurzaindiak diru-bilketa bat abiarazi zuen. Erronka ez zen makala: 400.000 euro batu nahi zituzten “laborantza herrikoa bultzatzen duten etxalde ttipiak erosi eta laborari berrien instalatzea laguntzeko”. Usurbilen, Nafartarrak taldeak bideratu du kanpaina hau. Hilabeteotan, 3.400 euro batu dituzte herrian. Lerro hauen bitartez, ekarpena egin dutenei eskerak eman nahi dizkiete.

Nekazaritzako lurrak “espekulazioen atzaparretatik zaindu eta laborantzan hasi nahi duten gazteentzat erosten” saiatzen da Lurzaindia. “Lurraldearen ekonomian laguntzen duen laborantza herrikoia eta tokiko baten garatzeko”.

Urte hasieran abiarazi zuten diru bilketarekin, bi etxalde erosi dira: bat Ainharben eta bestea Arüen.

Ariüngo etxaldean Amila Abou-Antoun ari da lanean.



Batu den diruarekin, Lurzaindiak bi egitasmo sustatuko ditu: Amila Abou-Antoun-en etxaldea batetik (lehen lerroan, ezkerretara) eta Johane Foirien eta Lutxo Herrerarena bestetik (lehen lerroan, erdikoa zein eskubitakoa).

Lurzaindiatik jakinarazi zutenez, “bere proiektua Alpesetako behi beltz esnedun behikiekin instalatzea da”. Laborantza biologikoan ari da eta esnea etxean bertan eraldatzen du.

Beste etxaldea Ainharben dago. Diru ekarpen honen bitartez, Johane Foirienek eta Lutxo Herrerak bere artaldea gobernatzen jarraitu ahal izango dute.

Oraindik bada diru ekarpenak egiteko aukera

Hauek eta beste ekimen gehiago babesteko aukera dago oraindik, Lurzaindiako harpide eginez. Euro bateko akzio bidez biltzen du dirua Lurzaindiak, gutxienez hoge euro inbertitu behar direlarik.

Beren webgunean formula ezberdinak planteatzen dituzte aukeran. Dirua gutxienez bost

urtez bertan uztea eskatzen da, erakundeak finantza aldeetik lasaitasunez funtzionatu ahal izateko eta baserritar gazteak instalatu daitezzen inbertsio berriei ekin ahal izateko.

Datu gehiago ondoko webgunean: www.lurzaindia.eu

Udal diru-laguntzen ebazpena

Adi, euskarako eta aisialdiko udal diru-laguntzak eskatuak dituzuenok. Udalak hartutako behin behineko erabakiaren berri laster jasoko duzue. Azken orduko aldaketarik ez bada, uztailearen 25eko asteen argitaratuko da behin behineko ebazpena, usurbil.eus atarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Behin behineko erabaki hau argitaratu ondoren, erreklamazioak aurkezteko epea zabalduko da. Argibide gehiago behar dituenak, deitu dezala udaleko Euskara Zerbitzura; 943 371 999.

Ika-Mika

UCIN, joan gabe itzuli den hori

UCINek arnasten dugun aierera isuritako kutsadurak sekulan ez dio eguneroko izateari utzi, baina, azken aldian, ezkutuan zirauek gaia eztabaida publikora itzuli da. Balia dezagun aukera zezenari adarretatik heldu eta arazoa behin betiko konpontzeko.

Ekonomia beharrezkoa dugu bizitzeko. Jan, edan, jantzi eta behar ditugun tresnak ekoiztuz besteak beste eratzen dugu ekonomia. Fabrikek leku garrantzitsua daukate horretan. Ekoiztutako ondasunen, enpleguaren eta ordaintzen dituzten

zergen bidez eskuratzen dugu onura hori herritarrek. Udalerriak eta herritarrek fabrikak behar ditugu, gorputzak bihotza eta birrikak behar dituen bezala. Ekonomia sortzaile diren fabriken lekua hori da, gure beharrak asetuz gure ongizatea ekartzea. Era berean, fabrikek udalerriaren eta biztanleen beharra daukate bere jarduerak burutzeko behar duten espazioa eta baliabide humanoak eskuratzeko. Elkarren behar horretan sortzen den oreka hori ezinbestekoa da, eta, era berean, harreman ona, oreka horretan bakarrik da posible.

Gorputzean organo batek oreka hausten duenean gaixotasuna sortzen duen bezala, fabrikak, oreka hausten dutenean, jendearentzat arazo bihurtzen dira. Enpresek etekinak handitzeko zilegi ez diren jokabideetara jotzeko tentazioa ez da gaurkoa. Kostuak gutxitzeko eta irabaziak handitzeko bidezidorrak ugariak dira. Baina dena ez da zilegi ezta zuhurra ere. Fabrika kutsadura iturri bihurtzeak, oreka hautsi eta alde guztiak kaltetzen gaitu. Fabriken kudeaketa patologikoa bihurtzen denean, herritarren ongizatearekin eta interesekin

bateraezina bihurtzen da, eta, fabrikak, jendartearen zegoekin lekua eta funtzioa galtzen du.

Guztion esku dago, oreka berreskuratu eta UCINek Usurbilen dagokion lekua izatea. Administrazio, eragile, herritar soil, UCINeko langile nahiz jabeek beharrezkoa dugun oreka hori berreskuratzeko ahalegina egin behar dugu. Jar gaitezen lehenbailehen horretan, inori ez baitzaigu komeni, inoiz, UCIN herritarren osasuna babesteko itxi behar izan zutela esan dadin.

Mikel Ikatategi Etxegia

Laboaren Uztaila, bete-betea

U surbilgo Gaztetxeak Mikel Laboaren omenez antolaturiko zikloko azken hitzorduak, datozen bi ostegunotan ospatuko dira. Joseba B. Lenoir eta Paxkal Irigoyen gonbidatu dituzte.

Joseba B. Lenoir

Uztailak 21, osteguna

22:00 Joseba B. Lenoir, bere bakarkako lanarekin. “Joseba Baleztena musikaria dago egitasmo honen atzean. Bera herriko mutila Ameba, Sexty Sexers, Sumision City Blues, Johnny & Joseph, Oskar Benas y los Vampiros del Ritmo... proiektuetan ibilia dugu. Willis Drummond, The Capaces, Petti eta abarreko zerrenda luzeko kolaborazioekin batera. Rock and roll garratzenetik abiatuta, beste hainbat soinu eta estilo garatu ditu. Bere bakarkako ibilbidean, berriz, esperimentaziotik abiatuz, loop eta pedalek eskaintzen duten ba-



Uztailaren 28an, Paxkal Irigoyenen kantaldiarekin itxiko da Usurbilgo Gaztetxeak Mikel Laboaren omenez antolatu duen zikloa.

liabide iturri amaigabea murgildu da. Betiere gitara bidelagun duelarik, perkusioak, bateria, mandolina, banjoa eta definitu ezin diren tresna ugari gehitu dizkio”. Informazio gehiago: josebalenoir.bandcamp.com

Paxkal Irigoyen

Uztailak 28, osteguna

22:00 Paxkal Irigoyen. “Dudarik gabe 2014an euskal eszenan entzun dugun proiekturik ederrenetarikoa da. Zezenaren

Taldea edo Bilau taldearekin musika estilo ugari jotzen ditu. Oraingoan, Paxkalek proiektu pertsonalagoa eskaintzen du, post rock eta folk orkestralaren mugetan. ‘Larrazken Orkestra’-k oholta ganean lagundurik, biolontxelo, biolin, gitara elektriko, esku soinu eta ahotsak elkarturik, zuzeneko tirabiratsu eta hunkigarria ematen du”.

Oharra: kontzertu guztiak Mikel Laboa plazan izango dira, borondatearen truke.

Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertuetako bat Salvatore elizan

Abuztuaren 4tik 31ra ospatuko den Donostiako 44. Musika Hamabostaldiaren baitako kontzertuetako bat, Usurbilen izango da abuztuaren 7an 20:00etan Salvatore Elizan.

Gipuzkoako elizetan barrena egingo den organo kontzertu ziklo baten baitan antolatu da hitzordu hau. Esteban Landarten kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu. “Hiru konposagile handiren hiru lan handi interpretatuko dira Usurbilgo Mutin/Cavallé-Coll organo interesgarrian. Reger, Alain eta Reubkeren lanak eskainiko ditu”, iragarri dute antolatzaileek. Emanal-



Esteban Landartek organo kontzertua eskainiko du abuztuaren 7an, 20:00etan Salvatore Elizan.

dirako sarrera doakoa izango da. Musika Hamabostaldiak antolaturiko kontzertua Fundación Lartundok babestu eta Usurbilgo Udalak lagundu du.

Ziklo honi buruzko informazioa eta egitaraua helbide honetan jaso dezakezue: quincenamusal.eus. Kontzertuetako sarre-
rak ere salgai dituzue bertan.

Ziortzaren kanpaldia desmuntatzen laguntzeko deia

Abuztu hasierarako desmuntaketa lanetarako hitzordua finkatua du Ziortza Gazte Elkartek. Laguntzarako deia luzatu du. “Desmuntaketa eguna abuztuak 7an dugu! Oraindik izena eman ez baduzu, gogoratu ziortzage@gmail.com bidez egin dezakezula. Eskerrik asko!”, ohartarazi dute gazte elkartetik.



Abuztuaren 7an egingo dute. ziortzage@gmail.com helbidera idatzi, izena emateko.

Bizipoza Jaia antolatzen

laguntza behar da

Irailaren 25ean Usurbilen ospatuko den elkartasun jaialdia antolatzeko batzarrak egiten ari dira Potxoenean. Orain arteko azkena, astearte honetan egin dute. Irrien Lagunak Klubetik sortutako Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartek herritar eta eragileekin batera diseinatu nahi du egitaraua. Honez gain, bolondresak beharko dira jaialdi eguneko ospakizunetan laguntzeko. Oporren bueltan argibide gehiago.

Bizipoza jaialdiari buruzko informazioa: bizipoza.org

Hurrengo NOAUA!, irailaren 9an

Astekari hau duzue oporraldi aurreko azkena. Datorrena, irailaren 9ko astean plazaratuko dugu. Zorion-agur edo oharrik baldin baduzue, irailaren 5a baino lehen bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera edo egoitzara ekarri.

POLTSIKOKO ORDUTEGIA:

1) Moztu ezazu ordutegia kanpoko lerroa jarraituz.

2) Tolestu orria horizontalean dauden 5 lerroetatik, akordeoi moduko bat osatuz. Akordeoia istean, publizitatea geratu behar zaigu kanpoaldean.

3) Tolestu ordutegia lerro bertikaletik. Hau da, erditik tolestu, eta ordutegia osatua izango dugu!

Bezeroen arretarako begalga
☎ 902 54 32 10

Tren Ordutegia

www.euskotren.es
i atcliente@euskotren.es

ZARAUZ-DONOSTIA

ZARAUZ	Zarauz	SAN PELAIANO	Orio	USURBIL	Donostia	ERREKALDE	Donostia	ANOROA	Donostia	LUSANITZ	Donostia	AMARA
06:08	06:09	06:15	06:24	06:29	06:32	06:35	06:38					
06:38	06:39	06:45	06:54	06:59	07:02	07:05	07:08					
07:08	07:09	07:15	07:24	07:29	07:32	07:35	07:38					
07:20		07:25	07:34	07:39	07:42	07:45	07:48					
07:38	07:39	07:45	07:54	07:59	08:02	08:05	08:08					
08:08	08:09	08:15	08:24	08:29	08:32	08:35	08:38					
08:20		08:25	08:34	08:39	08:42	08:45	08:48					
08:38	08:39	08:45	08:54	08:59	09:02	09:05	09:08					
09:08	09:09	09:15	09:24	09:29	09:32	09:35	09:38					
10:08	10:09	10:15	10:24	10:29	10:32	10:35	10:38					
11:08	11:09	11:15	11:24	11:29	11:32	11:35	11:38					
12:08	12:09	12:15	12:24	12:29	12:32	12:35	12:38					
13:08	13:09	13:15	13:24	13:29	13:32	13:35	13:38					
14:08	14:09	14:15	14:24	14:29	14:32	14:35	14:38					
15:08	15:09	15:15	15:24	15:29	15:32	15:35	15:38					
16:08	16:09	16:15	16:24	16:29	16:32	16:35	16:38					
17:08	17:09	17:15	17:24	17:29	17:32	17:35	17:38					
18:08	18:09	18:15	18:24	18:29	18:32	18:35	18:38					
19:08	19:09	19:15	19:24	19:29	19:32	19:35	19:38					
20:08	20:09	20:15	20:24	20:29	20:32	20:35	20:38					
21:08	21:09	21:15	21:24	21:29	21:32	21:35	21:38					
22:08	22:09	22:15	22:24	22:29	22:32	22:35	22:38					
22:38	22:39	22:45	22:54	22:59	23:02	23:05	23:08					

11:00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNEAN 08:00 Astelehenerik Igandera eta JAIEAN

Donostia	Donostia	LUGANITZ	Donostia	ANOROA	Donostia	ERREKALDE	USURBIL	Orio	Zarauz	SAN PELAIANO	ZARAUZ	
06:50	06:53	06:56	06:59	07:04	07:14	07:19	07:20					
06:20	06:23	06:26	06:29	06:34	06:44	06:49	06:50					
06:50	06:53	06:56	06:59	07:04	07:14	07:19	07:20					
07:20	07:23	07:26	07:29	07:34	07:44	07:49	07:50					
07:50	07:53	07:56	07:59	08:04	08:14	08:19	08:20					
08:20	08:23	08:26	08:29	08:34	08:44	08:49	08:50					
08:50	08:53	08:56	08:59	09:04	09:14	09:19	09:20					
09:50	09:53	09:56	09:59	10:04	10:14	10:19	10:20					
10:50	10:53	10:56	10:59	11:04	11:14	11:19	11:20					
11:50	11:53	11:56	11:59	12:04	12:14	12:19	12:20					
12:20	12:23	12:26	12:29	12:34	12:44	12:49	12:50					
12:50	12:53	12:56	12:59	13:04	13:14	13:19	13:20					
13:20	13:23	13:26	13:29	13:34	13:44	13:49	13:50					
13:50	13:53	13:56	13:59	14:04	14:14	14:19	14:20					
14:20	14:23	14:26	14:29	14:34	14:44	14:49	14:50					
14:50	14:53	14:56	14:59	15:04	15:14	15:19	15:20					
15:20	15:23	15:26	15:29	15:34	15:44	15:49	15:50					
15:50	15:53	15:56	15:59	16:04	16:14	16:19	16:20					
16:20	16:23	16:26	16:29	16:34	16:44	16:49	16:50					
16:50	16:53	16:56	16:59	17:04	17:14	17:19	17:20					
17:20	17:23	17:26	17:29	17:34	17:44	17:49	17:50					
17:50	17:53	17:56	17:59	18:04	18:14	18:19	18:20					
18:20	18:23	18:26	18:29	18:34	18:44	18:49	18:50					
18:50	18:53	18:56	18:59	19:04	19:14	19:19	19:20					
19:20	19:23	19:26	19:29	19:34	19:44	19:49	19:50					
19:50	19:53	19:56	19:59	20:04	20:14	20:19	20:20					
20:20	20:23	20:26	20:29	20:34	20:44	20:49	20:50					
20:50	20:53	20:56	20:59	21:04	21:14	21:19	21:20					
21:50	21:53	21:56	21:59	22:04	22:14	22:19	22:20					

11:00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNEAN 08:00 Astelehenerik Igandera eta JAIEAN

DONOSTIA - ZARAUZ

BUS-TAXI ZERBITZUA

☎ 630 64 35 96*

Astelehenerik Ostiralera

	GEITOKIAK	ORDUAK
1	Usurbil kaxkoa	7:30 10:30 13:00 15:30 19:00
2	Kalezar	7:32 10:32 13:02 15:32 19:02
3	Iartza	7:35 10:35 13:05 15:35 19:05
4	Ibarrola	7:38 10:38 13:08 15:38 19:08
5	Arratzain	7:42 10:42 13:12 15:42 19:12
6	Txantxon	7:45 10:45 13:15 15:45 19:15
7	Urdaira	7:48 10:48 13:18 15:48 19:18
8	Aginaga	7:55 10:55 13:25 15:55 19:25
9	Txokoalde	8:00 11:00 13:30 16:00 19:30
10	Urdaiaga (San Esteban)	8:03 11:03 13:33 16:03 19:33
11	Santuenea	8:05 11:05 13:35 16:05 19:35
12	Usurbil kaxkoa	8:08 11:08 13:38 16:08 19:38
13	Santuenea	8:10 11:10 13:40 16:10 19:40
14	Amiri	8:12 11:12 13:42 16:12 19:42
15	Etxetxo ingurua	8:14 11:14 13:44 16:14 19:44
16	Alkortaenea	8:17 11:17 13:47 16:17 19:47
17	Zubieta	8:22 11:22 13:52 16:22 19:52
18	Txikierdi	8:27 11:27 13:57 16:27 19:57
19	Usurbil kaxkoa	8:30 11:30 14:00 16:30 20:00



USURBIL - HERNANI AUTOBUSAK


	USURBIL	ZUBIETA	LASARTE	URBIL	HERNANI
Astelehenerik larunbatera	07:15	07:25	07:30	07:35	07:45
	08:15	08:25	08:30	08:35	08:45
	09:15	09:25	09:30	09:35	09:45
	10:15	10:25	10:30	-	-
	11:15	11:25	11:30	11:35	11:45
	12:15	12:25	12:30	12:35	12:45
	13:15	13:25	13:30	13:35	13:45
	14:15	14:25	14:30	14:35	14:45
	15:15	15:25	15:30	15:35	15:45
	16:15	16:25	16:30	16:35	16:45
17:15	17:25	17:30	-	-	
18:15	18:25	18:30	18:35	18:45	
19:15	19:25	19:30	19:35	19:45	
20:15	20:25	20:30	20:35	20:45	
21:15	21:25	21:30	21:35	21:45	
Astelehenerik larunbatera	07:45	07:55	08:00	07:05	07:15
	08:45	08:55	09:00	08:05	08:15
	09:45	09:55	10:00	09:05	09:15
	-	-	11:00	10:05	10:15
	11:45	11:55	12:00	11:05	11:15
	12:45	12:55	13:00	12:05	12:15
	13:45	13:55	14:00	13:05	13:15
	14:45	14:55	15:00	14:05	14:15
	15:45	15:55	16:00	15:05	15:15
	16:45	16:55	17:00	16:05	16:15
-	-	18:00	17:05	17:15	
18:45	18:55	19:00	18:05	18:15	
19:45	19:55	20:00	19:05	19:15	
20:45	20:55	21:00	20:05	20:15	
21:45	21:55	22:00	21:05	21:15	

Bezeroen arretarako begalga
www.lsst.info ☎ 943 36 17 41

OSPITALERA AUTOBUSAK	AGINAGA	USURBIL (San Inazio)	LASARTE (Nepeski)	OSPITALEA	OSPITALEA	LASARTE (Nepeski)	USURBIL (San Inazio)	AGINAGA
Lanegunak eta larunbarak	07:17	07:20	07:35	07:45	08:10	-	08:20	-
	-	08:20	08:35	08:45	08:50	09:00	09:15	-
	10:17	10:20	10:35	10:45	09:50	10:00	10:15	10:17
	-	11:20	11:35	11:45	11:10	12:00	12:15	-
	-	12:20	12:35	12:45	11:50	13:00	13:15	-
	-	13:20	13:35	13:45	12:50	14:00	14:15	-
	14:17	14:20	14:35	14:45	13:50	-	15:20	14:17
	-	15:20	15:35	15:45	15:10	-	16:15	-
	16:17	16:20	16:35	16:45	15:50	16:00	16:15	16:17
	-	17:20	17:35	17:45	16:50	17:00	17:15	-
	-	18:20	18:35	18:45	18:10	-	18:20	-
	-	19:20	19:35	19:45	18:50	19:00	19:15	-
	20:17	20:20	20:35	20:45	19:50	20:00	20:15	20:17
	-	21:20	21:35	21:45	20:50	21:00	21:15	-
22:37	22:40	22:55	-	22:10	22:20	22:35	22:37	

943 000 117

www.lurraldebus.com






SANTIOAK
2016

gehigarri berezia





Iruin Sagardotegia

ONDO PASA SANTIOAK!!

Petritza bidea 12, Zubieta 943.361.229

IRIGOIEN

ERRETEGIA

Ondo pasa Santiotan!



Euskal Herriko Parrila txapelketan bigarren! (2015)

943 37 28 75 Petritza bidea 10, Zubieta


Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



BARAZAR

OSTATU-JATETXEA

LOGELAK KOMUNAREKIN
AFARIAK EGUNERO
BAZKARIAK IGANDE ETA
JAIEGUNETAN



943 36 33 58 ARBITZA BIDEA, ZUBIETA



ALAMANDEGI JATETXEA

- Astean zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia, familia guztiarentzat aproposa!

Ondo pasa Santioetan!

Tel. 943 36 28 49 egin zure erreserba!
Urbisarte kalea 1, 20160 Zubieta

“Gure txikitasunean handiak garelako”

Jaietan atarian, Zubietako Jai Batzordetik idatzi bat eta ondoko argazkia igorri digute.

“Gainean dauzkagu aurten-go Zubietako herri jaiak eta herritarrok gogo biziz gaude festetako zazpi egunez goza dezagun. Herritarrok egiten ditugu jaiak eta modu honetan bihurtzen dira jai hauek herritarrok! Haur, gazte, heldu zein adinekok jaietan berebiziko presentzia dute: haurren egunean, jubilatuen egunean, oilasko biltzaileetan, Santiago egunean soka dantzako dantzari gisa, San Inazio eguneko erreboteko jokalarari gisa, ekimen parte hartzaile desberdinetan (mozorro egunean, herri antzerkian, herritarrok arteko jokoetan...)... Horixe da argazki honek adierazten diguna. Herritarrok bat egin-



Zubietako Jai Batzordea: “Herritarrok bat eginda azalarazten dugu zubietarren herri izaera, eta bat eginda egiten diogu aurre gure lurretan egiteko asmoa duten erraustegiari ere”. Argazkilaria: Lourdes Hueta.

da azalarazten dugu zubietarren herri izaera, eta bat eginda egiten diogu aurre gure lurretan egiteko asmoa duten

erraustegiari ere! Horregatik, gure herriko festak ongi pasatzeaz gain, aldarriz ere bete nahi ditugu. Gure txikitasu-

nean handiak garelako, gora zubietarrak!!!

Zubietako Jai Batzordea”.

bugati
ERRETERIA

OILASKOAK IKATZ-BRASAN ERRETERIA
eta UMEENTZAKO JOLASTOKIA

Arrapide Pasalekua, 74
20160 Zubietako (Donostia)

☎ 943 37 76 62 📍 Bugati Erreteria

Ondo pasa SANTIOMETAN!

TABERNA · PINTXOAK · RAZIOAK · BOKATAK
· HANBURGESAK · JATETXEA · MENUAK
· KARTA · AFARI MUSIKALAK
· OSPAKIZUNAK · EZKONTZAK · BATAIOAK

Arreta
sagardotegia

UZTAILAREN 21ean, OSTEAGUNA:
SARDINA ETA SAGARDOA 1€
MUSIKA ZUZENEAN ETA KOKTELEROA

Berridi Bidea 22, ZUBIETA 943 362 049

Zubietako jaiak, egitaraua



Gaupasa egunean, uztailearen 30ean, Lauroba eta Gozategi taldeak arituko dira.

Uztailak 23, larunbata: Mozorro Eguna

- 12:00 Jaien hasiera, txupinazoa eta Zubietarron III. Argazki herrikoi erraldoiarekin. Ez ahaztu zure mozorroa!
- Segidan, txosnen irekiera eta "fotokola".
- 14:00 Herri bazkaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik. Bazkalostean Bingo herrikoia, Erraustegiaren Aurkako Zubietako Taldearen eskutik.
- 18:00 Elektropatxaranga-ren laguntzarekin poteo herrikoia.
- 22:00 DJ Aros-en eskutik dantzaldia.
- 00:00 Tajon Prieto y Los Cua-jolotes taldearen emanaldia.
- Jarraian, DJ Aros-ekin dantzaldiaren jarraipena, zapata zolak urratu arte!

Uztailak 24, igandea: Jubilatuen Eguna

- 09:30 Meza.
- 11:30 Herriko gaztetxoaren eskutik, Joko Garbi erakustaldia Errebote Plazan.
- 12:30 Emakumeen pala partida Errebote Plazan: San Sebastian - Arrillaga Otaegi - Erasun
- 14:00 Jubilatuen bazkaria,

Barazar Jatetxean.

- 17:30 "Hoi denk hoi, habiladiala!", herritarron talentuen erakustaldia.
- Ondoren, Buruhandiak.
- 19:30 Sardin eta piper jatea.
- 23:30 Bi Bala taldearen kontzertua.
- Jarraitzeko, Laiotz erromeria taldearekin goizaldera arte dantza egiteko aukera.

Uztailak 25, astelehena: Santio Eguna

- 09:00 Esnadeia Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.
- 10:30 Meza Nagusia.
- Ondoren, hamaiketakoa eta soka dantza.
- Arratsaldean zehar, 1963-2016 urte arteko Zubietako Herri Jaien Egitarau erakustaldia Kaxkapen.
- 17:30 Toka txapelketa.
- Jarraian, buruhandiak.
- 18:30 Patxi Ta Konpainia taldearekin dantzaldia.

Uztailak 27, asteazkena: Oilasko Biltzaileen Eguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera trikitixa doinuekin alaituta.

- 14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

Uztailak 29, ostirala: Umeen Eguna

- 10:00 Jolasen hasiera.
- 13:30 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa.
- 16:00 Gaztetxoaren antzerkia Kaxkapen.
- Ondoren, jolasen jarraipena.
- Jarraian, txokolatada eta buruhandiak.
- 19:30 Ur jolasak.
- 22:30 Bertsolariak: Oihana Iguaran, Iker Zubeldia, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze. Gai jartzailea: Asier Azpiroz.

Uztailak 30, larunbata: Gaupasa Eguna

- 12:00 Sagardo dastaketa, eta pintxoak txosnan. Parte-hartuko duten sagardotegiak: Araeta, Aialde Berri, Alorrenea, Iruin, Satxota, Saizar, Urdaira, Kalonge.
- 16:00 Mus txapelketa (15:30tan izen ematea).
- 17:30 Herritarron arteko sukaldaritza proba.
- 00:00 Kontzertuak:

Lauroba eta Gozategi. Oihan Vega DJ-arekin goizaldera arte luzatuko da gaua.

Uztailak 31, igandea: San Inazio Eguna

- 09:00 Zikiro prestaketaren hasiera.
- 09:30 Meza.
- 11:00 Errebote jokoaren azalpenak, Errebote Plazan.
- 11:30 Zubietarren arteko errebote partida.
- 14:00 Zikiro jatea.
- 18:00 Gorritiren Showa.
- Ondoren, buruhandiak.
- 23:30 Azken urteetako jaietako argazki erakustaldia, Errebote Plazan.
- 00:00 Herriko jaien amaiera Lekittoko Deabruen eskutik. Amaitzeko, musika txosnan.

Oharrak:

- Jaietan gerta litezkeen ezbeharretan, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzukizunik.
- Musika egunero egongo da txosnetan gau eta egun.
- Jaietan ez da onartuko eraso sexista, homofobo edo arrazistarik.
- Antolatzailea: Zubietako Jai Batzordea.



SANESTEBANAK
2016

gehigarri berezia



San Estebango festak “beste

Jai Batzordean eman den eraldaketa handiaren isla izango dira abuztu hasieran ospatuko diren Xanistebanak. Hilaren 3an, 5ean eta 6ean Urdaiagan jai izango dute, aldaketekin aurten, antolatzaileek helarazi diguten ohar honetan nabarmendu duten moduan:

“Aurreko urteetako San Esteban jaien egitarauak gogoan hartuta, aurtengo jaietan hainbat aldaketa eman direla ikus daiteke. Esaterako, oilasko bil-tzaileen egunik ez ospatzea, edota jubilatuen bazkaririk ez egitea... Jai Batzordean bertan eraldaketa handia eman da, belaunaldi aldaketa itzela, hori dela eta, aurtengoan behinik behin, festak beste kutsu batekin datoz. Espero dugu datozen hi-



Urtero legez, herriko dantzariak egun seinalatuan arituko dira: San Esteban egunez.

leko jaiak giro onean ospatzeko aukera izatea. Gonbidatuta zaudete... Gora San Estebanak!

San Estebango Jai Batzordea”.

Herriko taldeen plaza

Jaietarako etxekoen aldeko apustua egin dute beste behin. Dantza Taldekoak izango di-

tugu Urdaiagan, edota musika gauetako bat, usurbildarrena izango da, Kezka eta Izeberg taldeek girotuko dutena.



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

943 36 46 00
www.lhusurbil.eus

Jai zorientsuak opa dizkizue!!!



41 urte pertsonak hezten

Erdi eta goi mailako
zikloak A, B eta D Ereduak

- Administrazioa
- Elektrizitate-elektronika
- Fabrikazio mekanikoa
- Ura eta energia
- Produkzio zerbitzu eta manten.

Etarte bidea 9, Zubieta

eskola@lhusurbil.eus



kutsu batekin datoz"

Abuztuak 3, asteazkena

- 09:00 Txupinazoa.
- 11:00 Meza nagusia.
- Ondoren, paxientxi eta ardo goxo banaketa.
- Jarraian, Usurbilgo Dantza Taldearen emanaldia.
- Gero, "luntxa" Jai Batzordearen eskutik.
- 18:00 Elizagoien ahizpak, Irune eta Itsaso Etxalartik.
- Ordu berean, hirugihar banaketa Jai Batzordearen eskutik.



Abuztuaren 5ean Kezka, Izeberg (argazkia: Ibai Arrieta) eta Eromeria arituko dira.

Abuztuak 5, ostirala

- 18:00 Txosnaren irekiera.
- 23:30 Herriko taldeak: Kezka, Izeberg, Eromeria.

Abuztuak 6, larunbata

- 10:30 Haurren marrazki le-

hiaketa.

- Ondoren, haurrentzako jolasak eta buruhandiak.
- 13:00 Haurren bazkaria. Norberak ekarria; edaria eta postrea Jai Batzordearen eskutik.

- 15:30 Mus txapelketarako izen ematea.
- 16:00 Mus txapelketa.
- 16:30 Haurrentzako puzgarria eta txapa tailerra.
- 18:30 Txokolatada eta buruhandiak.

■ 21:00 Herri afaria. Norberak ekarria; postrea, kafea eta kopa Jai Batzordearen eskutik.

■ 23:00 Bertsolariak: Oihana Iguaran, Ane Labaka eta Unai Mendizabal. Gai jartzailea: Haritz Mujika.

■ Gauean, Joxpa taldea.
■ Jaietako amaiera emateko, DJ Aros atzeko barran goizaldera arte.

Oharrak:

- Eremu askea! Ez da jarrera arrazista, sexista eta homofoborik onartuko.
- Jai Batzordeak ez du jaiegun hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik.

Antolatzailea:

San Esteban Jai Batzordea.



Zumeta Jatetxea

UDAKO MENU BEREZIA

- Etxeko aperitiboa.
- Mariskozko entsalada epela
- Pikilozko piper berdeak bakailuz beteak
- Xapoa plantxan panadera patatekin
- Azpizuna, ondo, patata purearekin eta pikiloak
- Etxeko azkenburua

Edariak: Ardoa, sagardoa...

Astelehenetik ostiralera

- Eguneko menua

Afariak: asteburutan eta jaiegunetan

Festak ospatzeko leku aproposa prezio ONEAN!

Txokoalde

943 362 713





SANATORIO de USURBIL

USURBILgo SENDATEGIA



San Esteban, 48. Tel: 943 36 11 24 Fax: 943 36 28 98
 info@sanatoriodeusurbil.com www.sanatoriodeusurbil.com

Ondo igaro festak!

O.P.R 92/16









Kentuene

JATETXEA

Sagaltxipi baserria, 23
20170 Usurbil · Gipuzkoa
Tlf: 943 361 127 · Fax: 943 373 317
www.kentuene.com

Ondo pasa Sanestebanak!

Garabide Elkartea eta Udala, lankidetzan beste bi urtez

Bi urterako hitzarmena sinatu dute bi aldeek. Ondoko irudian, aste hasieran hitzarmena sinatu zuten unea. Ezkerretik eskuinera: Txema Abarrategi Garabide Elkarteko kidea, Xabier Arregi alkatea eta Xuban Zubiria zinegotzia.



Txema Abarrategi Garabide elkarteko kidea, Xabier Arregi alkatea eta Xuban Zubiria zinegotziarekin batera.

Hitzarmen horren baitan, Usurbilgo Udalak urteko 6.000 euroko laguntza bideratuko du Garabide Elkartera, “munduko hizkuntzen biziberritze proiektuak indartzen laguntzeko; modu intentsiboan kitxua, nasa, nahuatl eta kaqchiquel herrienak eta, bigarren mailan, maputxe, aimara, maya yukateko, amazigh eta kurduenak”.

Trukean, Garabide Elkarteak “merezitako aitortza publikoa egiteko konpromisoa ez ezik,

Aditu Titulua dela-eta atzerriko ikasleen udazkeneko egonaldia baliatuz, usurbildarrengan hizkuntza minorizatuekiko sentsibilitatea pizteko Udalarekin adostutako ekimenean parte hartzeko konpromisoa hartzen du”.

Kooperazio era berrian lan egiten, esperientzien elkartrukean oinarritzen den lankidetzan sus-

tatzen urteak daramatza Garabide Elkarteak. Denbora darama, garapen-bidean diren herrietako hizkuntza normalizatzeko egitasmoak bultzatzen. Helburuok:

1.- Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetzan bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperien-

tzien trukean oinarrituta.

2.- Norabide horretan, munduko Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatueta eragileekin lankidetzan proiektuak garatzea. Lankidetzan proiektu horiek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-alor batzuetan gauzatzen dira, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarritz.

3.- Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuekiko lankidetzarako beren esperientzia eskaini dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz.

Informazio gehiago: garabide.eus

DĒMA PLAZAN ĒMANALDIA

UZTAILAK 22, OSTIRALA

•20:00-21:30 Saizar sagardoa eta Koldo Huegun
“Borda-Txuri” oilasko pintxoa 2€ Dema plazan.

•21:30-22:30 Mikel Alkorta eta Jazzpana.

•22:30 Bertso musikatuak. Bertsoan: Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Arkaitz Oyartzabal 'Xamoa'. Musikariak: Ixak Arruti (kitarra), Eneko Sierra (saxofoia).

AITZAGA ETA TXIRIBOGA TABERNEK ANTOLATUTA



TXIRIBOGA
TABERNA



[Klik! batean](#)

Klasikoa

Adinak ematen duen patxada dauka. Garai batean, presaka ibiltzeko grina izaten zuen. Baina denboraren poderioz, egonean egoten ikasi du.

Adinak ematen duen patxada, eta adinak ematen duen distira dauka. Apain-apain agertu ohi da beti. Adinak bakarrik ematen duen dotoreziarekin.

Argazkia: Ion Markel



Erraustegiari buruzko galdeketa, auzoka eta hiru egunez

Jaietan iragarri moduan, Erraustegiaz galdetuko zaie herritarrei iraila amaieran. Erraustegia egitea nahi den edo ez erabakitzeak aukera izango dute aginagar, usurbildar eta zubietarrek, irailaren 30etik urriaren 2ra. Astelehen eguerdian galdeketa honi begira finkatu den prozedura aurkeztu zuten sustatzaileek, Erraustegia Erabakia herri plataformako kideek, Potxoenean egin zuten agerraldian.

“Hitza ukatzea ez da inolaz ere onargarria”

Datorren herri galdeketa buruzko protokoloaren aurkezpenean onartezintzat jo zuten, hainbesteko kezka eragiten ari den gaiari buruzko iritzia ematea ukatzea herritarrei. “Urteak daramagu erraustegiaren polemikarekin. Eta ez da kontu hutsala, ezta gutxiago ere. Herrian tentsioa eta kezka eragiten duen gaia da, eta zentzu honetan, gure ustez, tamaina horretako kezka sortzen duen gai baten inguruan herritarro hitza ukatzea ez da inolaz ere onargarria. Are gehiago oraindik, galdeketa ofizialaren aldeko saiakera egin ondoren, Udalak ezezkua jaso duenean”, adierazi zuten Maialen Unanuek eta Patxi Azpirotzek.

Galdeketa, herrian gai honetik dagoen kezka handiaren adierazgarri izango dela aurreikusten dute. “Bi



Astelehenean prentsaurrekoa eskaini zuten Potxoenean.

ERRAUSTEGIA ERABAKIA

“Tamaina honetako kezka sortzen duen gai baten inguruan, herritarro hitza ukatzea ez da inolaz ere onargarria”

hilabete barru egitera goazen herri kontsulta honetan ere parte hartze maila handia izatea espero dugu. Herritarren kezka eta eskaerari erantzuten diolako galdeketa honek”, Erraustegia Erabakia herri plataformako esanetan.

Aurrekariak

Erraustegiari buruzkoa ez da udalerrir honetan egingo den lehen galdeketa izango. Erabaki garrantzitsuez, ika-mika edo kezka eragiten duten gaiez galdetu izan zaie lehendik usurbildarrei. Badira bi aurrekari; 1998an Urbil merkataritza guneaz eginko galdeketa, edota

2010eko otsailean hondakinen bilketa sistemari buruz antolatutako. “2010eko kontsulta horretan bozka emateko eskubidea zutenen %70a baino gehiagok parte hartu zuen. Datuak ongi frogatzen du herri honek badakiela inplikazio eta partehartze maila altua lortzen, gai garrantzitsuei buruz galdegiten diotenean”, nabarmendu zuten herri plataformako kideek, Potxoeneko agerraldian.

Galdeketa auzoka:

- Irailak 30, ostirala: 16:00-20:00 Aginaga.
- Urriak 1, larunbata: 9:00-14:00 Santuenea.
- Urriak 1, larunbata: 16:00-20:00 Zubieta.
- Urriak 2, igandea: 9:00-20:00 Kaxkoa.
- Oharra: edozein mahaitan bozkatuko ahalko da, norberari ondoen datorkion egun eta orduan.

Herri galdeketa jakin beharrekoak

Egunak:

- Irailak 30 (ostirala), urriak 1 (larunbata) eta urriak 2 (igandea).

Galdetuko dena:

- “Erraustegia egitea nahi al duzu? Bai ala ez?”.

Erantzun posibleak:

- “Bai” eta “Ez” dioten bi bozka paper izango dira aukeran.

Nortzuk parte hartu ahalko duten:

- Usurbilen eta Zubietan erroldaturiko 16 urtetik gorako herritarrek. Guztira, 4.106 lagunek izango dute bozkatze aukera.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- DNI-NAN, EHNA + Errolda agiria, pasaporte edo gidabaimena.
- Espainiar estatuak herritartzat hartzen ez dituen pertsonen dokumentuotako bat erakutsi beharko dute: bizileku-txartela, jatorrizko estatuak jaulkitako nortasun agiria edo pasaporte, nortasun agiria/ziurtagiria, edo gidatzeko baimena.
- Oharra: kasu guztietan, aurkeztu beharreko dokumentazioan bizitokia Usurbil edo Zubieta dela agertu beharko da. “Hala ez bada, Udalaren erroldatze ziurtagiria eraman beharko da”.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Gardentasuna eta zuzentasuna ziurtatzeko, Berme Batzorde bat osatuko da

Erraustegiari buruzko galdeketa hiru egunez eta auzoka egingo da. Urriaren 2an, galdeketa amaieran egingo da bozka zenbaketa, "ekitaldi publikoan". Emaizen berri emango zaie herritarrei, baita Usurbil eta Donostiako Udalei eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. "Gardentasuna eta zuzentasuna bermatze aldera", Berme Batzordea osatze-

ko lanean ari da Erraustegia Erabakia herri plataforma. "Herritarren artean osatuko da Berme Batzorde hori eta nortzuk osatzen duten jakinaraziko dugu aurrerago. Berme batzordearen zeregina galdeketa prozesu osoa ikuskatzea eta protokoloak ezartzen duenaren arabera betetzen dela bermatzea izango da", iragarri dute.



Herritarrez osatua egongo da Berme Batzordea. Aurrerago jakinaraziko dute nortzuk osatuko duten.

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren deia

Uztailaren 28an osteguna, erraustegia eraikitzeke proiektua esleitzeko asmoa du GHK-k. Eguerdiko 11:00etan Gipuzkoa Plaza hurbiltzeko deia zabaldu dute. "Ekarri maindire txuri bat". Deiarekin batera, eskaera hori egin dute.

Erraustegiaren egitasmoari aurre egiteko hamaika deialdi egin dituzte datozen egunetarako

Uztailak 23, larunbata

■ Bazkalostean, Zubietako jaien baitan bingo herrikoa, Erraustegiaren Aurkako Zubietako Taldearen eskutik.

■ 19:30-20:30 Erraustegiaren aurkako material salmenta Zubietako jaietan.

Uztailak 24, igandea

■ 19:30-20:30 Erraustegiaren aurkako material salmenta Zubietako jaietan.



Kamisetak salgai izango dira Zubietako festetan. Agenda moduko honetan topatuko dituzue zein egunetan eta zein ordutan.

Uztailak 28, osteguna

■ 11:00 Erraustegia eraikitzeke proiektua esleitu du GHK-k Foru Aldundiko egoitzan. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak Gipuzkoa Plazan batzeko deia zabaldu du.

"Erantzun sendoa emango dugu. Ekarri maindire txuriak", gonbite hori luzatu dute.

Uztailak 29-30 aldera

■ Erraustegia eraiki eta ku-

deatzeko proiektuaren esleipeneko oinarrien berri eman dezake Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak. Enpresa interesdunek eskaintzak aurkezteko bi hilabeteko tartea izango dute.

Uztailak 30, larunbata

■ 12:00-13:00 Erraustegiaren aurkako material salmenta Zubietako jaietan.

Uztailak 31, igandea

■ 12:00-13:00 Erraustegiaren aurkako material salmenta Zubietako jaietan.

Irailak 30, urriak 1, 2

■ Erraustegiari buruzko herri galdeketa Usurbilen. Bolondresak beharko dira.

■ Antolatzaileekin harremanetan jartzeko hiru modu hauek dituzue: web orrian, emailez edo Twitter sare sozialaren bidez.

erraustegiaerabakia.wordpress.com
erraustegiaerabakia@gmail.com

Twitter: @U2erabakia

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

USURBIL AUTOAK
-TAILERRA -KARROZERIA -KOTXEEN SALMENTA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

☎ 943 36 10 79

Oinarrizko Lanbide Heziketa, lanean hasi nahi duten gazteentzat

Lanean hasi nahi duten 15-17 urte arteko gazteei bidea jorratzen laguntzen diete Atallun kokatua dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketan. Bertan ikasi dutenen esanetan, hezkuntza eskaintza honek asko eman die. Eta lanean munduratu ondorengo bidea ere oparoa izan ohi da ikasle askorentzat. Bi lekukotza segidan.

Irune Arizmendi: "Hemen bezala, inon ez zaituzte mimatzen"

Zergatik erabaki zenuen Oinarrizko Lanbide Heziketan ikastea?

Ikastea betidanik kostatzen izan zait. DBH-ko 2. maila erreplikatu nuen. Hirugarren mailan nengoela onena ikasketoi ekiten izango zela proposatu zidaten. Hori esan zidatenean mundua gainera jausi zitzaidan.

Zer zenuen entzunda?

Jendeak uste du ikasketak haurtararen jarrerarengatik zatozela. Ikastea kostatzen zitzaidalako etorri nintzen ni. Gogoan dut, Atallura etorri ginenean ez nuen sartu nahi. Gero irakasleak ezagutu nituenean ondo, taldearekin ere gustura.

Zer moduz moldatu zinen bi urteko ikasketotan?

Ordu eta erdiz teoria jasotzen



Ikasketen ondoren, praktikak egin zituen ileapaindegian kontratatu zuten lanerako.

genuen graduatua ateratzeko, gainerako orduetan ileapain-tzaile ikasketak. Oso arina da. Bi urteak oso azkar pasa zitzaizkidan.

Ondo prestatuta atera zarete gainera.

Bai. Oinarri eta lanketa handia

eginda goaz jarrera mailan, maila tekniko ere oso ondo landuta. Ofizioari loturiko gai guztiak jorratzen dira. Dena da baliagarria gerorako. Jakinda zoaz.

Ikasketak amaituta zer ibilbide egin duzu orain arte?

Praktikak egin ostean, Monte Albertiako zikloetan izena eman nuen. Aldi berean Donostiako ileapaindegi batean aritu nintzen urtebetez. Bigarren ikasturtean, Parisen praktikak egitea egokitu zitzaidan. Hila-beterako joan nintzen.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Oso ona. Handik bueltatzean, Tolosako ileapaindegi batean praktiketara joan nintzen eta gaur egun bertan segitzen dut lanean, oso gustura. Aurten lanean, beste titulu batzuk ateratzeko aprobetxatu dut. Hurrengo urtean goi maila egitera noa.

OHL ikasten hastear doanari zer esango zenioke?

Animatzeko, jarrera ona izatea, laguntzen utzi, eta gogoia jartzea.

Estitxu Frias: "Irtenbide egokia lanean hasi nahi duenarentzat"

Nola erabaki zenuen?

Ez zegoen buelta askorik. Ikasi nahi ez genuenok "zip" bat egin behar genuen. Garai haietan ez genuen aukera asko. Sukaldaritza hautatu nuen, gerorako ere ondo etorriko zitzaidalakoan. Azkenean horretan lanean bukatu dut. Zailagoa izan zen, ikasketak hauek bukatu eta sukalde batera lanera joatea.

Zer moduzkoa izan zen ikasketak prozesua?

Lehenengoan Xabi Tellorrek ikasten aritu ginen, bigarrenean Joxemari Alduntzinekin. Ia erabat praktikoa izan zen, beti sukaldean sartuta. Gogoan dut lehen egunean arrautz frijitu bat egiten jarri ziguten. Nik

banekien plater batzuk prestatzen, baina batzuk ez zekiten ezer egiten. Zeretik hasi ginen.

Ikasketak bukatu eta nola oroitzen duzu lan munduratzeko lagundu zizun lehen esperientzia?

Beldur pixka batekin. Oso ondo tratatu zidaten nagusi eta lankideek. Lanerako giro oso sana zegoen. Lan asko egiten zen baina barre asko egiten genuen.

Atzera begira jarrita, ikasketekin asmatu zenuela esan dezakezu?

Bai. Lanerako ere bai baina gehienbat niretzat balio izan dit. Errezeta piloa dut karpetan. Oso oroitzen onak dit eskolatik eta

praktiketarik.

Zure esperientziatik, Oinarrizko Lanbide Heziketak irteera profesionala badu?

Beste ikasketak batzuk baino bide gehiago du. Niri lana behin ere ez zait falta izan. Xabi Tellok asko lagundu zidan. Konturatzeko Xabik lana bilatzen zidan. Langabezia 6 hilabete egongo nintzen. Bordatxon 10-11 urte daramatzat.

Norentzat litzateke egokia OLH?

Irtenbide egokia lanean hasi nahi duenarentzat. Aukera ederra da, prestakuntzaren iraupena motzagoa da. Ez da teoria asko sartzen dizuten leku bat. Oso



Estitxu Friasek adierazi digunez, "niri lana behin ere ez zait falta izan".

eramangarria da.

Oinarrizko Lanbide Heziketa: Eskaintza: sukaldaritza eta jatetxea; ile-apainketa eta estetika.

Informazio gehiagorako eta izen emateko: Usurbilgo Udalak. Atallu. Zanziura, 3.

943 360 465

lhi@usurbil.eus

Usurbil Cup, iraila hasieratik

34 taldeetan banaturiko ia 400 bat haur eta gazte-txok parte hartuko dute iraila hasieratik abian izango den Usurbil Cup txapelketan. Neurketa gehienak larunbatetan eta Haranen jokatzeko ahalegina egiteko asmoa du Usurbil F.T.-k.

Bereziki araudian eta jarrreran eragin nahi dute aurreten ere. "Araudi bat finkatuko dugu eta zorrotz beteko da", ohartarazi dute. Beste behin gogorarazten dutenez, txapelketa honetako xede nagusia haur eta gaztetxoek parte hartzea sustatzea eta



Ia 400 gazte arituko dira futbolean. Argazkia iazko sari banaketakoa da.

ondo pasatzeko kirol ekimena izatea da. Denboraldi berezia izango da 2016-17 kirol urtea herriko futbolarien-

tzat. 40 urte beteko baititu Usurbil F.T.-k. Eta urteurrena ekimen bereziekin ospatu asmo dute.

Lar Zaldiak, eskola ere bai

Eskaintza zabaltzen doa Urdaigako Lartzandietan baserrian kokaturiko Lar Zaldiak. Orain arte bezala, aurrerantzean ere zaldi gainean osteratxoak egiteko aukera izango da. Aisialdira bideratuagoak dauden irteera hezigarrietan parte hartzeko aukera dago bertan, jarduerak hau ezagutzen hasi nahi dutenentzat aproposa. Baina probatu, "gustukoa izan eta ezagutzen sakondu nahi duenarentzat, formazioa jasotzeko aukera du", adierazi digute Lar Zaldiak-etik.

Bertako kide Silvia Simonek prestakuntza tekniko eskainiko du, jarduerak honetan maila teknikoan sakondu



Maila ezberdinetako formazioa jasotzeko aukera dago orain.

nahi duenarentzat. Prozesu luze baten ostean, ibilbidean zehar eginiko lanketari esker, azkenean jarduerak honetan irakasle gisa aritzeko teknikari titulazio ofiziala eskuratua du Simonek.

Gutxi dira, berarekin lau

bat baino ez Gipuzkoan titulazio maila hau dutenak. Dagoeneko badute taldetxo bat prestakuntza jasotzen, "pare bat urte daramatzatenak, oso gustura". Maila ezberdinetako formazioa jasotzeko aukera dago Lar Zaldiak-en.

IX. Baxurde Krosserako entrenatzen hasi

Irailaren 18an ospatuko da Baxurde Txiki U.T.T.-k antolatutako proba herrikoien bederatzigarren edizioa. Goizeko 10:30etan abiatuko dira lasterkariak frontoi ingurutik. Izen ematea aurrez bideratu beharko da, kirolprobak.com ataritik. 5,2 eta 10,75 kilometrotako ibilbide bana izango da aukeran. Amaieran ohi bezala, sariak eta zozketak.



Irailaren 18an ospatuko da.

Denboraldi berriari begira

Hala dira herriko kirol taldeak. Bat baino gehiago abuztuan itzuliko dira lanera, eta lehiari ere orduan ekingo diote. Usurbil K.E.-ko senior neskek Euskal Kopako lehen neurketa abuztuaren 29tik irailaren 4rako astean jokatu du Ermuan, Errotabarraren aurka. Partida hau irabaziko balute, bigarrena irailaren 5etik 11rako astean Muskiz edo Kukullagaren aurka. 1. Nazional mailako senior mutilen taldekoek ere Euskal Kopari dagokion lehen neurketa irailaren 18a baino lehen jokatu dute Donostian, Egiaren aurka.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
IATETXEA
· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m² pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezio berria: 138.000 euro. Ramón 615149900

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehenez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaigagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekia, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Pisu bat alokairuan Atxegalden. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldea eta terraza. 637 309 209.

Txaramunto kalean etxebizitza alokatzen da. Hiru gela eta bi komun dituen. 100 m². Trasteroa eta garajea aukeran. Abala eskatuko da. 649 26 17 04.

Etxebizitza Santu Enea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezioa 550 euro. Ramón 615149900.

Etxe bat Etxealdian. 3 logela, sukalde-jangela, 2 balkoi eta dena kanpora. 626 867 493.

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehenez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro koadro, Kale Nagusia 22-an. 618860270

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 60.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala

la salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Moto-rra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Pertsona helduak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, asteburuetan eta jai egunetan eta ospitalean gauak pasatzeko. 632 754 243. Piedad.

Neska bat lan bila dabil, garbiketa lanetan eta pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala edo orduka. 646 062 692.

Psikoterapia humanistako ikasketak dituen pertsona bat eskaintzen da, pertsona helduei laguntzeko. Prezioa hitz egin daiteke. Tel 649 589 213. Peio.

Zerbitzari euskaldun bat behar da esperientziarekin. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajuregia.com

Estetizista bat behar da ilea-paindegi batean lan egiteko. 943361971

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Emakume bat behar da astean hiru egunetan: bazkaria eta garbitasuna egiteko. Tel. 609 403 081.

Zubietako taberna berri batean lan egiteko 3 pertsona behar dira. Uztaila eta abuzturako. Esperientzia baloratuko da. CV hona bidali: laneskaintza2016@gmail.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzaiko lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta



Zorionak Irati! Abuztuaren 5ean 6 urte beteko dituzu. Familia osoaren partez muxu muxu asko.



Zorionak Uxue!! Uztailak 18an 11 urte beteko dituzu! Muxu goxo bat Garazi, ama eta aitaren partetik!



Zorionak Ekhi!! Uztailaren 22an 6 urte beteko dituzu. Ondo ondo ospatu eta muxu handi bat.



Zorionak Elaia! 9 urte bete zenituen uztailaren 15ean. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Aratz! Uztailaren 26an, 9 urte beteko dituzu muxu potolo bat. Unax, Oihan, June eta Anje.



Zorionak Ibai! Lais-ter zure urtebetetzea izango da eta ederki pasako degu. Muxu bat etxekoan partetik.



Zorionak Odei! Uztailaren 25ean 5 urte borobil beteko dituzu. Muxu potolo bat. Mua!!!



Zorionak Eneko! Uztailaren 11n bederatzirte bete ditugure mutilak, muxuak etxekoan partetik, Keko.

Heriotzak

Kristina Bengoetxea Urruzmendi

94 urterekin

hil zen uztailaren 17an Usurbilen

OHARRA: Irailaren 9an aterako dugu oporren ondorengo NOAUA! asteakaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: irailak 2. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

garbiketean. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehalan lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehalan lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil. Usubilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehalan lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabaldua duen emakumea eskaintzen da haurrak zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalquetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen,

garbiketean lanak egiten, jabetxe-
ren batean harraskako garbiketarako
egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan
egingo nuke asteburutan. Espe-
rientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da pro-
paganda edo gutunak banatzeko.
Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak
zaintzeko, baserriko lanetan ari-
tzeko edota edozein lanetarako.
Interno moduan lan egiteko
prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat
eskaintzen da, paper, esperientzia
eta nazionalitatearekin, adineko
pertsonek zaintzeko. 10 urteko
esperientzia sukaldetan, garbiket-
tan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak
ditut. Esperientzia biltegiko lan-
netan eta banaketan. 657 535
299.

Pertsona helduak edo umeak
zaintzen lan egingo nuke. Or-
duka, interna edo egunean lan

egiteko. Papelekin eta erreferen-
tziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak
zaintzen lan egingo nuke. Or-
duka, interna edo egunean lan
egiteko. Papelekin eta erreferen-
tziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna
eskaintzen da pertsona helduak
zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz
dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mu-
tila, pertsona helduak zaintzeko
eskaintzen da. Interno moduan
edo nahi den bezala. Badaki etxe-
ko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen espe-
rientzia asko duen mutil bat, lan
bila dabil. Gaietan, orduka edo
asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan,
orduka edo asteburutan lan
egiteko neska bat eskaintzen da.
Paperekin eta esperientzia asko-
rekin. Gomendio askorekin. 638
602 597.

Neska bat eskaintzen da, hel-

duak edo umeak zaintzeko. 695
602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak
zaintzen lan egingo nuke. 30 ur-
teko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketean, plan-
txatzeko eta interna moduan
ere bai. Larunbat, igande eta jai
egunetan ere prest nago. 676
188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest
nago. Pertsona helduak gaietan
zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaint-
zen da esperientziarekin. Perts-
ona heldu ezinudak edo amaieran
dauden pazienteak zaintzeko.
Etxean zein egoi-tzetan. 943
365 079 / 635 715 142.

BESTELAKOAK

Egoera onean dagoen flauta
trabesera bat erosiko nuke, edo
urtebetez alokatu. 645 737 925.

Maiatzaren 26an, 17:00ak alde-
ra Oiardo Kiroldegian Golf gris
auto bati kolpe txiki bat eman

nion. Ohar bat utzi nion. Zurea
bada jarri nirekin kontaktuan;
635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donos-
tikatik elkarteetan. 633 273 747 /
605 730 115

Nort Face markako eta urdin
turkesa koloreko haur forro po-
lar bat galduta. Aurkitu baduzu
deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu
Landetan uztaileko bigarren
hamabostaldian, uztailearen
17tik 31ra. Aste bakarrerako edo
hamabostaldirako alokatzeko
aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira.
Kontaktua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparituko
nuke. Baserri edo pabeloia
zaintzeko ona da. Bost urte ditu
eta beltza da. Txerto eta mi-
kro-txipa jarrita ditu. 943 365
228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean
mobil home bat saltzen da. 656
791 676.

Borda baten bila gabiltza Usur-
bil inguruan. Gehienez 10.000
metro koadroko terrenoarekin.
Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai.
10 eurotan kilo. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe con-
fort" marka LA modeloa. Beltza
eta berri-berria dago. Burbuja eta
eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako so-
fak salgai, larruzkoak, egurrezko
ertzekin. Egoera onean, 500
euro negoziagarri. usurbil72@
hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634
409 888.

Denborarik ez baduzu zure
maskota paseatzeko, nik lagun-
duko dizut. Ordubeteko ibilbi-
deak. Asteburutan. 688 888
176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pati-
neteak, liburuak... Garbigunearn.
Doan hartu daitezke. Astelehe-
netik ostiralera: 10:15-13:00 /
16:00-19:00 artean. Jai egunak
ez diren larunbatetan: 9:00-
13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 21 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 23 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 24 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 25 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteartea 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 27 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Uztailak 21 - uztailak 31

Osteguna 28 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 29 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 30 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 31 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda uztaila

22 ostirala

- Aitzagak eta Txiribogak antolaturiko festa Dema-plazan.
- Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Artzabalen.

23 larunbata

- Sagarrondotik Sagardora ikastaroa. 9:00etan Potxoenean
- Zubietako Herri Jaiak Mozorro Eguna. Ikus 12. orrialdea.
- Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Artzabalen.

24 igandea

- Zubietako Herri Jaiak Jubilatuen Eguna. Ikus 12. orrialdea.
- Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Artzabalen.

Pintxoak, bertsoak eta musika, Aitzaga eta Txiribogaren eskutik

Aitzaga eta Txiriboga tabernek ostiral iluntzerako plan borobila prestatu dute. Mokadutxoak, trikiti saioa eta bertso musikatuena, Dema plazan. Honatx egitaraua:

Uztailak 22, ostirala

- 20:00-21:30 Saizar Sagardoa eta Bordatxuri oilasko pintxoak dastatzeko aukera, Dema plazan. Prezioa: 2 euro.
- 21:30-22:30 Mikel Alkorta eta Jazzpana taldearen emanaldia frontoian.
- 22:30 Bertso musikatuena saioa, Ixak Arruti (kitarra) eta Eneko Sierrarekin (saxofoia), eta bertsolariokin: Beñat Gazte-



Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi ostiralean arituko diren bi bertsolari.

lumendi, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Arkaitz Oartzabal "Xamoa".
Antolatzaileak: Txiriboga eta Aitzaga tabernak.

Talentu ezkutuaren bila

Dantza egitea gustuko duzu? Trebea zara abesten? Magia numerorik ezagutzen al duzu? Zubietako festetan, zure talentu ezkutua plazaratzeko aukera paregabea duzu. Igandean, hilak 24, Zubietako plazan oholza eta mikrofonoa eskura izango dituzu. Saioa 17:30ean hasiko da. Deialdia haur gazte nahiz helduei zuzendua dago. "Utzi lotsak etxean eta etorri zubietarrak txunditzera", Jai Batzordetik aditzera eman dutenez.

Kayak jaitsiera, Orián

Ordaindutako zerbitzuaren baitan sartzen da materialaren alokairua, Txokoaldera garraioa, eta Txokoaldetik Oriarako jaitsiera, Arraunetxeko aldagelen erabilez gain. Hauek dira hurrengo irteerak:

- Uztailak 24: 10:00
- Uztailak 26: 10:00
- Uztailak 31: 16:30.

Abuzturako ere badira aukera gehiago. Informazio gehiago: 657 794 677
info@begi.bistan.com / begi-bistan.com

Datozenak

Elkarretaratzea

Uztailaren 29an, hilabeteko azken ostiralean, euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo dute Mikel Laboa plazan. 20:00etan.

Atxegaldeko festak

Abuztuak 26, ostirala

17:30 Herri poteoa txarangarekin.
20:00 Txupinazoa.
Jarraian, txoznen irekiera eta luntx mundiala.
23:00 Kontzertu gaua: Zapparra, Skasti eta berbena Erokomeri taldearekin.

Abuztuak 27, larunbata

11:00 Umeentzako jokoak eta opari banaketa.
14:00 Herri bazkaria (norberak etxetik ekarria).
16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 izen ematea).
Ondoren, haurrentzako antzerkia.
18:30 Txokolatada.
21:00 Afaria.
Gaeon: Fan and go! eta Dj bat.

Abuztuak 28, igandea

12:00 Haur eta helduen toka txapelketa.
Salda eta pintxo banaketa.
17:00 Mastertxex txikia.
18:30 Bertso musikatuak.
22:30 Azken traka.

Otar-Goxo
E l i k a g a i a k
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

ELORZA
O B R A K E T A
E R R E F O R M A K S. L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!

beirazko itxitura
seeglass one
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



Ondo pasa Santiotan!!

